



URA: TANTA BAKOITZA, ALTXOR BAT

On-line erakusketaren eta panelen erabilera didaktikorako gida

URA: TANTA BAKOITZA, ALTXOR BAT

On-line erakusketaren eta panelen erabilera didaktikorako gida

“Ura: tanta bakoitza, altxor bat” erakusketa diseinatu da ikastetxeak urarekin, garapen iraunkorarekin eta haurren eskubideekin zerikusia duten jarduera hezitzaileak egin ahal izan ditzan adin ezberdinetako taldeekin. Gida honetan aurkituko dituzun jarraibideekin probetxu handia atera ahal izango diezu erakusketako baliabide didaktikoei. Zure ikastetxerako erakusketa eskatzeko prozedurari edo erakusketa muntatzeari buruzko zalantza praktikoak badituzu, honako orria kontsulta dezakezu:

www.unicef.es/eus/educa/blog/erakusketa-ura-gih

GOMENDIO OROKORRAK

- Aztertu erakusketaren edukiak taldeei aurkeztu aurretik. Jarduerak online bertsioan aurkituko dituzu: www.unicef.es/eus/educa/tantak/expo.
- Paneletako eduki didaktikoak Lehen Hezkuntzatik hasita garatu daitezke, ikasleen adinaren eta heldutasun-mailaren arabera. Txikienekin denbora gehiago igaro dezakegu istorioak eta irudiak lantzen, eta nagusiagoekin, berriz, eztabaida zabalagoak proposa ditzakegu.
- Panel bakoitza era didaktikoan garatzen denbora asko pasa daiteke, eta gure gomendioa da, beraz, aurretik aukeratzea sakonago landu nahi ditugunak, edo bisita hainbat saiotan egitea guztiak landu ahal izateko.
- Edukiak egokiak dira haurrek eta nerabeek euren kasa landu ditzaten, baina kontuan izan heziketaren ikuspegitik etekinik handiena hezitzaile baten ardurapean eta taldean landuz aterako zaiela.



The poster is divided into two main sections. The top section is titled "URA: TANTA BAKOITZA, ALTXOR BAT" (Water: as many different, one treasure) and features a blue background with a white hand holding a water droplet. The bottom section is titled "AGUA: CADA GOTA, UN TESORO" (Water: every drop, a treasure) and features a blue background with a white hand holding a water droplet. Both sections include the UNICEF logo and the text "Mundu osoan, ur-tanta bakoitzak milioiak balio ditu. Ikusi gaur zergatik." (In the whole world, every drop of water is worth millions. See today why.) and "En todo el mundo, cada gota de agua vale millones. Descubre hoy por qué." (In the whole world, every drop of water is worth millions. Discover today why.). The bottom right corner features a circular graphic of the 17 Sustainable Development Goals (SDGs) and the hashtag #UNICEFtantak.

URA: TANTA BAKOITZA, ALTXOR BAT

Mundu osoan, ur-tanta bakoitzak milioiak balio ditu. Ikusi gaur zergatik.

AGUA: CADA GOTA, UN TESORO

En todo el mundo, cada gota de agua vale millones. Descubre hoy por qué.

#UNICEFtantak



1. PANELA SARRERA

Panel honetan erakusketa aurkezten da, eta online bertsioaren orri nagusira bideratuko gaitu. Hona hemen panel honetako bisita dinamizatu ahal izateko hainbat galdera:

- Ura altxor bat al da? Zer esan nahi du esaldi horrek? Ados al gaude? Ba al dakigu zer kostatzen den ura baino gehiago? Eta zerk duen balio handiagoa?
- “Ur-tanta bakoitzak milioiak balio ditu” esaldia hiperbole bat da. Zer adierazi nahi digu?
- Azpian Garapen Iraunkorrerako Helburuen logoa ikusten dugu. Ba al dakigu zer diren?



2. PANELA GARAPEN IRAUNKORRA: GUZTION ERRONKA

Panel honen bidez zertxobait gehiago sakondu ahal izango ditugu Garapen Iraunkorrerako Helburuak (GIH). QR kodearen bidez sartuko garen orrian labur-labur adierazita daude helburu guztiak, eta horietako bakoitza arretaz aztertzeke tartetxo bat har dezakegu:

- Garapen Iraunkorrerako Helburuek ba al dute loturarik euren artean?
- Ura zehazki dago aipatuta 6. GIHn, zure ustez, garapen iraunkorrerako beste zein helburutan izan dezake garrantzia?
- Zer ikusten dugu paneleko argazkian? Zer gertatzen zaie neska-mutil horiei? Zure ustez, nolakoa da euren eguneroko bizimodua?

* Laguntza: Yemengo desplazatuak kanpamendu batean ateratako argazkia da, eta hareak ekaitza datorrela nabari da, horregatik ez da zeruaren kolorea ikusten. Ura oso mugatuta dago, eta egunean hiru aldiz ordubetea bakarrik izaten dute.



3. PANELA

URA: GARAPEN IRAUNKORRAREN ITURRI

Ura funtsezkoa da Garapen Iraunkorrerako Helburuak lortzeko. QR kodearen bidez zertxobait gehiago jakin ahal izango dugu ura izateko eskubidea betetzeko 5 baldintzez, haiei buruz hitz egiteko eta gure inguruan eta beste leku batzuetan zenbateraino betetzen diren jakiteko.

- Izenburuan metafora bat dago: Identifikatuko ote zenuke? Zer esan nahi du?
- Argazkia Madagaskarren, ura eskuratzeko zailtasunak eta deforestazio-arazoak dituen eskualde batean, ateratakoa da. Hala eta guztiz ere, ez du zerikusi handirik aurrekoarekin. Zer ezberdintasun ikusten dugu? Zer transmititzen digu argazkiak?



4. PANELA

UR OSASUNTSUA, DENONTZAT NAHIKOA ETA ESKURAGARRIA

Panel honen QR kodeak istorio erreal batzuetara eramango gaitu, eta mundu osoko familia askok eta askok eguneroko bizimoduan behar duten ura izateko dituzten zailtasunak ulertzen lagunduko digute. Istorio bakoitzak bere galderak eta erantzunak ditu. Guztiak landu ditzakegu (denbora dezente beharko da), edo landuko dituen taldearentzat interesgarrienak iruditzen zaizkigunak aukeratu ditzakegu.



5. PANELA

SANEAMENDUA: AZTERTU BEHARREKO GAIA

Agian nahiago izango genuke gelan saneamenduaz ez hitz egin, txantxa eta txiste ugari sortzen baitira gaiaren inguruan, eta, zenbaitetan, zaila izan daiteke ordena mantentzea. Hala eta guztiz ere, garrantzi handiko gaia da, munduko milioika pertsonaren osasuna eta biziraupena horren baitan baitaude. Pertsona askok “kateari tira egiteko” aukerarik ez dutela jakitea lagungarria izan daiteke munduko leku askotan dituzten garapen-arazo batzuk ulertzeko.

QR kodeak saneamenduari buruz zer dakigun jakiteko test batera eramango gaitu, eta umorez eta hain agerikoak ez diren galdera batzuen bidez garapenaren erronka horri buruz gehixeago jakiten lagunduko digu. Helburu nagusia ez da “denak asmatzea”; saneamenduari buruz hitz egiteko, mito batzuk hausteko eta jakin berri dugunaz hausnarketa egiteko aitzakia bat baino ez da.



6. PANELA

HIGIENEA: EGUNEROKO OSASUN- ETA DUINTASUN-KEINUAK

Herrialde garatueta higiene berezkoa dela asumitzen dugu, eta zenbaitetan gehiegi fidatzen gara. Edozein pertsonarentzat da funtsezkoa oinarrizko higiene-jarraibideak zein diren jakitea, inguruaren garapen-maila gorena izanda ere. Higienea eta prebentzioa sinonimoak dira, eta gaixotasun edo arrisku jakin batzuek edozeini eragin diezaioke neurriak hartzen ez baditugu.

QR kodearen bidez sukalde batean sartuko gara, eta bertako osasun- eta higiene-arrisku batzuk ikusiko ditugu. Gai izango ote gara guztiak asmatzeko erantzunak ikusi aurretik? Zerk harritu zaitu gehien? Gai ote gara gure inguruan antzeko arriskuak hautemateko?



7. PANELA

KLIMA-KRISIALDIA: URA ARRISKUAN

Klimaren egungo krisiak arriskuan jartzen ditu munduko hainbat lekutako uretako ekosistemak, eta, ondorioz, baita gure bizimodua eta biziraupena ere. Hondamendi naturalak, hala nola lehortiak, uholdeak edo zikloiak, dira horren adibide. Nola sentitzen gara egoera horrekin?

QR kodearen bidez bideo batean sartuko gara, eta bertan klimaren egoerari buruzko mundu osoko neska-mutilen iritziak entzun ahal izango ditugu. Zerk harritu gaitu? Ba al du zerikusiren bat gurekin? Bideo bat grabatuko bagenu, zer esango genuke?



8. PANELA

PARTE HARTZEA: ELKARREKIN HOBETO LAN EGINGO DUGU

Ura partekatu beharreko baliabidea da. Hori dela eta, arazo bat badago, denok parte hartu beharko genuke konponbidea ematen. Garapenerako lankidetzan funtsezkoa da komunitateko kide guztion parte-hartzea, konponbide benetan eraginkorrak eta iraunkorrak eman ahal izateko, QR kodearen bidez irekiko zaigun istorioak kontatzen digun bezala: *Diara eta txorroten misterioa*.



9. PANELA

TANTAZ TANTA: DENOK LAGUNDU DEZAKEGU!

Ura, higieenea eta saneamendua gai konplexuak eta zabalak dira, eta horren aurrean, agian, txiki eta ezerez senti gaitezke. Ezta pentsatu ere! Tanta guztiak dira garrantzizkoak, eta QR kodearen bidez ikus daitezkeen adibideek horixe egiaztatzen digute.



10. PANELA

HEZIKETAREN INDARRA

Urari buruz dena dakigula uste al dugu? Zure taldearen jakinminaren arabera, azter dezakezu gizakiaren jardueraren edo ezagutzaren zein arlo dauden urarekin lotuta, eta zenbateraino. Orain dela mende askotatik urak eragina du bizi garen lekuan, gure hiriak antolatzeko moduan, energia lortzeko eran, industrian, hizkuntzan, literaturan, arteetan... Uraren zuzenbidea eta uraren ekonomia ere badaude. Erronka izango litzateke urarekin zerikusirik ez duen zerbait aurkitzea!

QR kodearen bidez urari buruzko 10 datu jakingo ditugu, eta eztabaida dinamizatzen lagunduko digute.

URA: TANTA BAKOITZA, ALTXOR BAT

On-line erakusketaren eta panelen erabilera didaktikorako gida

Informazio gehiago:

Online erakusketa: www.unicef.es/eus/educa/tantak/expo

Tantak kanpaina: www.unicef.es/eus/educa/tantak

Haurren eskubideen inguruko hezkuntzari eta hiritartasun globalari buruzko UNICEFen orria:
www.unicef.es/eus/educa

Erakusketa hau AECIDen laguntza finantzarioarekin garatutako programa baten parte da, "ODS E INFANCIA: Promover el cumplimiento de los ODS desde el ámbito educativo, por y con los niños, niñas y adolescentes - 2019/Pry/0513", proiektuaren kontura. Edukia UNICEF Espainiako Batzordearen erantzukizuna da, eta ez du nahitaez AECIDen iritzia islatzen.